Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

59

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez, baimena ematen da unibertsitateko ikasleentzako bekak –2010-2011 ikasturteko Erasmus programari eta unibertsitate-mugikortasuna sustatzen duten nazioarteko beste programa batzuei dagozkienak– finantzatzeko guztizko diru-kopurua handitzeko.

2010eko maiatzaren 11ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2010eko ekainaren 9ko EHAAn argitaratu zen. Agindu horren bidez, 2010-2011 ikasturterako beketarako deia egin zitzaien unibertsitateko ikasleei, Erasmus programan eta nazioartean mugitzeko beste unibertsitate-programa batzuetan parte hartzekoak zirenei. Agindu horren 2. artikuluan, guztira diru-laguntzetan 1.071.200 euro emango zirela xedatu zen. Artikulu horretan jasotakoaren arabera, alabaina, zenbateko hori handitu daiteke, baldin eta emateko proposatu diren eskabideek horretara behartzen badute. Horren berri Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez emango da.

2010-2011 ikasturteko bekak emateko prozesua amaiturik, 1.102.800 euro izan dira mintzagai dugun deialdiaren guztizko zenbatekoa. Zenbateko horrek 31.600 eurotan gainditu du deialdian nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko 2010erako aurrekontuetan esleitutako zenbatekoa.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Baimena ematea 2010-2011 ikasturterako nazioarteko unibertsitate-mugikortasunerako beken deialdiko guztizko diru-kopurua 31.600 eurotan handitzeko. Hortaz, 1.071.200 euroko guztizko zenbateko hori 1.102.800 eurokoa izango da orain.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 10a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

59

RESOLUCIÓN de 10 de noviembre de 2010, de la Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve autorizar un incremento en la cuantía total destinada a la financiación becas para estudiantes universitarios y universitarias en el marco del programa Erasmus y otros programas de movilidad universitaria de carácter internacional en el curso académico 2010-2011.

La Orden de 11 de mayo de 2010 (BOPV de 9 de junio de 2010), de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan becas para estudiantes universitarios y universitarias en el marco del programa Erasmus y otros programas de movilidad universitaria de carácter internacional en el curso académico 2010-2011, determina en su artículo 2, que el importe total de las ayudas asciende a 1.071.200 euros, importe que puede ser incrementado en caso necesario teniendo en cuenta la cuantía que supongan las solicitudes con propuesta de concesión. Esta circunstancia será objeto de publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Administración y Servicios.

Tras la finalización del proceso de concesión de las becas correspondiente al curso 2010-2011, se ha cuantificado el importe total de esta convocatoria en 1.102.800 euros, lo que supone un incremento de 31.600 euros con respecto a la cantidad consignada en la convocatoria y en los propios presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi para este año 2010.

Por todo lo cual,

RESUELVO:

Autorizar un incremento de 31.600 euros al importe total de la convocatoria de becas de movilidad universitaria de carácter internacional en el curso académico 2010-2011, pasando de 1.071.200 euros a 1.102.800 euros.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de noviembre de 2010.

La Viceconsejera de Administración y Servicios,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.